Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2950

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 16koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena. Honen bidez, Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi-mailako Eskolako lan legepeko irakasle finkoak ikastetxe horretan lanpostuen zerrenda osatzen duten plaza eta espezialitateei atxikitzen zaizkie.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriak sare publikoan sartu nahi zuten ikastetxeekin hitzarmenak izenpetzeko baimena ematen zuen, betiere ikastetxe horiek jabekideen artean pertsona juridiko publikoren bat bazuten edo sare horretan sartzea eskolatzeko eta hezkuntza-plangintzako beharrek justifikatzen bazuten.

Horren arabera, garai hartako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Gasteizko «Arte Aplikatuen eta Lanbide Artistikoen Eskola» ikastetxeko titularrarekin hitzarmen bat izenpetu zuen, eta, hitzarmen haren bidez, ikastetxe hori sare publikoan sartu zen, otsailaren 22ko 99/1994 Dekretuaren bitartez.

Bigarrena.– Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak hainbat erreforma egin, eta irakaskuntzak berregituratu zituen. Hain zuzen ere, «Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzak» izena eman zien arte aplikatuei, lanbide artistikoei, modalitate guztietako diseinuari, eta kultura-ondasunen kontserbazioari eta berriztapenari lotutako irakaskuntzei.

Abenduaren 5eko 1284/2002 Errege Dekretuak, berriz, irakaskuntza horiek ematen dituzten irakasleak zer espezialitate berriri atxiki behar zitzaizkien ezarri zuen.

Hirugarrena.– Abenduaren 16ko 307/2003 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko jakin batzuetan lan-kontratuko irakasleentzat eta hainbat kidegotako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuen zerrenda onartu zuen. Gasteizko Arte Eskolari dagokionez, zerrenda hark hainbat espezialitatetako 11 lanpostu esleitzen zizkien lan-legepeko langileei.

Azaroaren 15eko 386/2005 Dekretuak lanpostu horietako batzuk aldatu zituen, espezialitateari edo hizkuntza-ezaugarriei dagokienez, 2005eko irailaren 1etik aurrerako eraginkortasunez.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2950

RESOLUCIÓN de 16 de mayo de 2011, del Director de Gestión de Personal, por la que se adscribe al personal docente laboral fijo de la Escuela de Arte y Superior de Diseño de Vitoria-Gasteiz a las plazas y especialidades que en ese centro configura la relación de puestos de trabajo.

ANTECEDENTES

Primero.– La disposición adicional octava de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, autorizaba la suscripción de convenios con centros docentes que desearan integrarse en la red pública, siempre que en su titularidad participara una persona jurídica pública o su incorporación viniera justificada por necesidades de escolarización y planificación educativa.

En su virtud, el entonces Consejero de Educación, Universidades e Investigación suscribió un convenio con el titular del centro educativo «Escuela de Artes Aplicadas y Oficios Artísticos», de Vitoria-Gasteiz, que finalmente posibilitó la integración de éste en la red pública por medio del Decreto 99/1994, de 22 de febrero.

Segundo.– La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, introdujo diversas reformas y reestructuró las enseñanzas, denominando «Enseñanzas de las artes plásticas y de diseño» a las relacionadas con las artes aplicadas, los oficios artísticos, el diseño en sus diversas modalidades y la conservación y restauración de bienes culturales.

Por su parte, el Real Decreto 1284/2002, de 5 de diciembre, estableció las nuevas especialidades a las que adscribir al personal que imparte tales enseñanzas.

Tercero.– El Decreto 307/2003, de 16 de diciembre, aprobó la relación de puestos de trabajo reservados al personal docente de carácter laboral y a personal funcionario de diversos Cuerpos Docentes en determinados centros públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En lo que respecta a la Escuela de Artes de Vitoria-Gasteiz esa relación atribuía a personal laboral 11 puestos de diferentes especialidades.

El Decreto 386/2005, de 15 de noviembre, modificó alguno de esos puestos en lo relativo a la especialidad o a sus características lingüísticas, con efectos de 1 de septiembre de 2005.

Azkenik, azaroaren 3ko 577/2009 Dekretuak beste aldaketa bat egin zuen lanpostu baten hizkuntza-eskakizunari zegokionez, eta, horren ondorioz, ikastetxean lan-legepeko langileentzat erreserbatutako egungo lanpostu-banaketa sortu zen, betiere azaroaren 2ko 279/2010 Dekretuaren bidez argitaratutako zerrendaren arabera.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoez Kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen laugarren xedapen iragankorrak hau dio: «Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen erabaki gehigarrietako zortzigarrenean aipatzen diren eta sare publikoan sar daitezkeen ikastetxeen zerbitzuko langilegoak, lehendik zuen maila izanez, administrazioaren zerbitzura jarraituko du, lanpostu horiek iraungitzekoak izango direlarik».

Bigarrena.– Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 13. artikuluaren arabera, «Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak».

Ildo horretan, hezkuntza-administrazioko plantillaren egituraketa, funtzionarioei nahiz lan-legepeko langileei dagokienez, irakaskuntza-sistema berriak ezartzen dituen espezialitateak kontuan hartzen dituen lanpostu-zerrendaren bitartez konfiguratu behar da.

Gasteizko Arte Eskolari dagokionez, horixe bete zuten abenduaren 16ko 307/2003 Dekretua argitaratu zenez geroztik. Dekretu haren arabera, hainbat espezialitatetako 11 lanpostu lan-legepeko langileentzat erreserbatu ziren.

Ikastetxe haren integrazio-prozesuaren ondorioz hezkuntza-administrazioaren zerbitzura jarraitzen zuen langile bakoitzari lanpostu horietako jakin bat esleitzeko -esleipen hori adierazitako dekretua egin zen egunean hasi zen eraginkorra izaten-, langile haiek ordura arte emandako irakaskuntzen ezaugarriak hartu ziren aintzat; hortaz, ordura arte izandako plazetan jarraitu zuten, plaza haien izena aldatu bazen ere.

Azaroaren 15eko 386/2005 Dekretuaren eta azaroaren 3ko 577/2009 Dekretuaren bidez lanpostu-zerrendan egindako aldaketek ikastetxeko lan-legepeko langileen plantillan ere izan zuen eragina; izan ere, plantilla ematen ziren gaietara hobeto egokitzeko aukera eman zuen, baita plazei zegozkien hizkuntza-eskakizunetara hobeto egokitzekoa ere. Hortaz, behar ziren moldaketak egin ziren.

Por último, el Decreto 577/2009, de 3 de noviembre, introdujo una nueva modificación en el perfil lingüístico de uno de los puestos, dando origen, así, a lo que constituye la actual distribución de puestos de trabajo reservados a personal laboral en el centro, de acuerdo con la relación publicada por Decreto 279/2010, de 2 de noviembre.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– La disposición transitoria cuarta de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco señala que: «El personal al servicio de los centros a que hace referencia la disposición adicional octava de la Ley de la Escuela Pública Vasca, que se integren en la red pública, continuará al servicio de la Administración con la relación que ostentara, siendo sus plazas declaradas a extinguir.»

Segundo.– De acuerdo con el artículo 13 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, «Las relaciones de puestos de trabajo son el instrumento mediante el cual las Administraciones públicas vascas racionalizan y ordenan sus estructuras internas, determinan sus necesidades de personal, definen los requisitos exigidos para su desempeño y clasifican cada uno de ellos.»

En esa línea, la estructuración de la plantilla de la administración educativa, tanto en lo que respecta al personal funcionario como al laboral, debe configurarse por medio de una relación de puestos de trabajo que tenga en cuenta las especialidades que establece el nuevo sistema de enseñanzas.

En lo relativo a la Escuela de Artes de Vitoria-Gasteiz, así se llevó a cabo a partir de la publicación del Decreto 307/2003, de 16 de diciembre, en el que se reservaron a personal laboral 11 puestos de trabajo de diversas especialidades.

La individualización de esos puestos en cada una de las personas que como consecuencia del proceso de integración de ese centro continuaban al servicio de la administración educativa, cuya fecha de efectos habría de ser la del propio decreto citado, se debió llevar a cabo en función de las características de las enseñanzas que hasta entonces habían impartido, de modo que permanecieran en las plazas que hasta entonces hubieran venido desempeñando, aun cuando su denominación se transformara.

Los cambios operados en la relación de puestos de trabajo por medio de los Decretos 386/2005, de 15 de noviembre, y 577/2009, de 3 de noviembre, también proyectaron sus efectos sobre la plantilla de personal laboral del centro, al permitir una mayor adecuación de ésta a las materias impartidas, así como a los perfiles lingüísticos de las plazas, por lo que se debieron llevar a cabo los ajustes correspondientes.

Ebazpen honen helburua, hain zuzen ere, Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi-mailako Eskolan lan-harremanaren bidez zerbitzua ematen duten pertsonen egoera argitzea da, eta, egin diren lanpostuzerrendetan bildutako banaketaren arabera, pertsona horietako bakoitzari zer lanpostu dagokion adieraztea.

Hirugarrena.– Bestalde, era horretako irakaskuntzei dagokienez gizarte-eskaerek harrezkero izan duen bilakaerak zera ekarri zuen: hainbat langile kontratatu zituztenean ezarritako funtzioek ikastetxe horretan ez irautea. Hori gertatu zitzaien, hain zuzen ere, zeramika ematen zutenei, azken ikasturteotan espezialitate hori ez baitago eskolan eskaintzan.

Ildo horretan, urtarrilaren 18ko 7/2000 Dekretuko zioen azalpenean hau ziurtatzen zen, hizpide dugun egoeraren aurrekaritzat har genezakeena: «Kontratatua izan zeneko funtzioen desagerpenak lan-erlazioa kausa objektiboengatik iraungitzea ekar dezake, baina hori ez zen administrazioak publiko bihurtzeko prozesuekin hartu zuen konpromisoa, eta ez da benetako posibilitatea, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak eta Irakasle-Kidegoen Legeak aurreikusten dutelako funtzionario bihurtzen ez den lan-legepeko pertsonalak bere hasierako erlazio juridikoa mantenduko duela, beren lanpostuak iraungi beharrekotzat aitortuak izanik. Gainera, laneko epaileek nekez onartuko lukete iraungipen bat edo kargugabetze bat kasu hauetan, enplegu-emaileak, hots, administrazioak bere dimentsio guztiarekin, bere egituraren eta antolaketaren osotasunean beharrezkoa denean lan-legepeko langilea berriz lanpostu batean jartzeko behar adina lanpostu badituela ulertzen delako».

Horregatik, egoera horretan dauden lau langileek hezkuntza-administrazioaren zerbitzura jarraituko dute; hain zuzen ere, beren prestakuntza- eta esperientzia-ezaugarrietarako egokiak diren funtzioak esleituko zaizkie, baita oraingo kategoria eta lanaldia errespetatu ere.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

1. Aditzera ematea Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi-mailako Eskolako lan-legepeko irakasle finkoak zer plaza eta espezialitateri dauden atxikita, betiere ikastetxe horretako lanpostu-zerrenda osatzen duten plaza eta espezialitateei gagozkiola (Lanpostu-zerrenda hori azaroaren 2ko 279/2010 Dekretuaren bidez onartu zen, I. eranskinaren arabera).

2. Zehaztea zer langileren funtzioek ez duten jarraitzen Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi-mailako Eskolan. Pertsona horiei beren prestakuntza- eta

El objetivo de esta resolución es precisamente clarificar la situación de las personas que presta servicio en la Escuela de Arte y Superior de Diseño de Vitoria-Gasteiz con relación laboral, indicando para cada una de ellas el puesto de trabajo que le corresponde de acuerdo con la distribución recogida en las sucesivas relaciones de puestos de trabajo.

Tercero.– Por otra parte, la evolución que en el transcurso de este tiempo han ido experimentado las demandas sociales en relación con este tipo de enseñanzas, propició que en algunos casos no permanecieran en ese centro las funciones para las que algunas personas fueron contratadas. Es el caso de quienes impartían cerámica, especialidad que desde hace varios cursos académicos no figura en la oferta de la Escuela.

En ese sentido, y tal y como aseguraba la exposición de motivos del Decreto 7/2000, de 18 de enero, en lo que bien puede entenderse como un antecedente de la situación a que nos referimos, «Si bien la desaparición de las funciones para las que fue contratado podría suponer una extinción de la relación laboral por causas objetivas, no es menos cierto que ni ése era el compromiso asumido por la Administración con los procesos de publificación, ni es una posibilidad cierta desde el momento en que la propia Ley de Función Pública Vasca y la Ley de Cuerpos Docentes prevé que el personal laboral fijo docente que no se funcionarice conservará su relación jurídica inicial, siendo sus plazas declaradas a extinguir. Además, difícilmente un juez de lo social admitiría una extinción o, en su caso, despido para estos supuestos, por entender que el empleador -la Administración, con toda su dimensión- dispone de suficientes puestos de trabajo en el conjunto de su estructura y organización para recolocar al laboral afectado cuando fuera preciso.»

Por ese motivo, las cuatro personas que se encuentran en esa situación continuarán al servicio de la administración educativa mediante la atribución de funciones adecuadas a sus características de formación y experiencia, y respetando su categoría y jornada laboral actual.

Por todo lo cual,

RESUELVO:

1.– Hacer pública la adscripción del personal docente laboral fijo de la Escuela de Arte y Superior de Diseño de Vitoria-Gasteiz a las plazas y especialidades que en ese centro configura la relación de puestos de trabajo, aprobada mediante Decreto 279/2010, de 2 de noviembre, de acuerdo al anexo I.

2.– Determinar las personas cuyas funciones no continúan en la Escuela de Arte y Superior de Diseño de Vitoria-Gasteiz, y a las que se asignará el des-

esperientzia-ezaugarrietara egokitutako funtzioak esleituko zaizkie, eta gaur egun dagozkien kategoria eta lanaldia errespetatuko zaie, II. eranskinaren arabera.

3. Hezkuntzako Langileen Kudeaketa Integratuko Erregistroa erregularizatzea, betiere langile horiek lan-legepeko langileentzat erreserbatutako lanpostuei atxikitzeari dagokionez, hain zuzen ere lanpostuzerrendak onartzeko egin diren dekretuetan argitaratu diren lanpostuei atxikitzeari dagokionez.

Errekurtsoak:

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 16a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.

empeño de funciones adecuadas a sus características de formación y experiencia, con la categoría y jornada que actualmente les corresponden, de acuerdo al anexo II.

3.– Regularizar el Registro de Gestión Integrada de Personal de Educación en lo que respecta a la adscripción de ese personal a los puestos de trabajo reservados a personal laboral que en ese centro han venido siendo publicados de forma sucesiva por los correspondientes decretos de aprobación de las relaciones de puestos de trabajo.

Recursos:

Contra la presente Resolución puede interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de mayo de 2011.

El Director de Gestión de Personal,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.

I. ERANSKINA
ANEXO I

NAN *DNI*	Izen-abizenak *Nombre y apellidos*	Espezialitatea *Especialidad*	HE-DD *PL-FP*
16239244	Antonio Cipres Torres	Marrazketa artistikoa eta kolorea *Dibujo artístico y color*	1-datarik gabe *1-sin fecha*
16258603	M. Yolanda Duque Villar	Modelismoa eta maketagintza *Modelismo y maquetismo*	2-betea *2-vencido*
16259879	Miguel Angel Garay Rodriguez de Mendarozqueta	Industri antolaketa eta araudia *Organización industrial y legislación*	1-datarik gabe *1-sin fecha*
15839020	Jose Ignacio Garcia Roman	Modelismoa eta maketagintza *Modelismo y maquetismo*	1-datarik gabe *1-sin fecha*
16238910	Fernando Maria Garcia De Cortazar Ugarriza	Marrazketa artistikoa eta kolorea *Dibujo artístico y color*	2-betea *2-vencido*
16250336	Jose Pablo Lopez De Lacalle Jaime	Materialak eta teknologia: Diseinua *Materiales y tecnología: Diseño*	1-datarik gabe *1-sin fecha*
16241213	Miguel Angel Nogales Rodriguez	Artearen Historia *Historia del arte*	2-betea *2-vencido*
16232544	Juan Jose Pariente Yela	Modelismoa eta maketagintza *Modelismo y maquetismo*	1-datarik gabe *1-sin fecha*
16236708	M. Rosario Sobron Corcuera	Materialak eta teknologia: Diseinua *Materiales y tecnología: Diseño*	1-datarik gabe *1-sin fecha*
16250873	Jose Carlos Vegas Barron	Argazkigintza eta erreprodukzio-prozesuak *Fotografía y procesos de reproducción*	1-datarik gabe *1-sin fecha*
07826370	Maria Lourdes Vicente Estevez	Marrazketa artistikoa eta kolorea *Dibujo artístico y color*	1-datarik gabe *1-sin fecha*

II. ERANSKINA
ANEXO II

NAN *DNI*	Izen-abizenak *Nombre y apellidos*	Lanaldi-mota *Tipo de jornada*
15803201	Ramon Berraondo Garcia	Lanaldi osoa *Jornada completa*
16256881	M. Angeles Merino Marijuan	Lanaldiaren heren bat *Un tercio de jornada*
15808231	Maria Jose Moreno Fernandez	Lanaldi osoa *Jornada completa*
16275462	Pedro Zubizarreta Ibarrondo	Lanaldi osoa *Jornada completa*